



***RASFF TXOSTENA- ALERTAK ETA
JAKINARAZPENAK ELIKAGAIETAN***

2011ko 1go LAUHILEKOA


elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

2011ko 1. lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) **elikagaien 972 alerta eta jakinarazpen** berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturriei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

IDENTIFIKATUTAKO ARRISKUAK	ZENBATEKOAK
Mikotoxinak / biotoxinak	% 22
Kutsadura kimikoa	% 14
Kutsadura biologikoa	% 15
Metal astunak	% 8
Hondakinak	% 19,5
OGMak	% 1,5
Kutsadura fisikoa	% 2
Iruzurak	% 7
Produktua gaizki kontrolatuta	% 11




Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, % 88an, kutsadura **Aflatoxinek** eragindakoa da eta, horrelakoetan **kakahueteak** kutsaduren % 39 eragin du. Bestalde, kasu gehienetan (% 49) kakahuetea **Txinatik** zetorren. Bigarren lekua oso banaturik dago: **pistatxoa, espeziak, pikuak** eta **urrak** kopuru berdintsuetan.

Kutsadura biologikoei dagokienez, **Salmonella sp.k** kutsaduren % 29 eragin ditu. Lauhileko honetan ez dute ez *S.typhimurium* ez *S.enteritidis* espezieek notifikaziorik eragin. Alerta gehien eragin dituztenak (% 40,5) **oiletegiko-hegaztiak** izan dira, ia denak **europarrak** izanik (% 82) eta hauen atzean agertzen dira, **belar aromatikoak** %28,5an eta **Asiako** jatorrikoak %91,5ean.

Kutsadura kimikoari dagokionez, **Gehigarriak eta Koloratzaileak** dira eragile nagusi (kasuen % 54) eta ez dago produktu nabariagorik.

ITURRIA	ZK	AGENTEA	ZK(%)	PRODUKTU ERAGILEA	ZK(%)	JATORRIA	ZK(%)
Mikotoxinak/Biotoxinak	213	Aflatoxinak	188 (88%)	kakahueteak	72(39 %)	Asia	35 (49%)
Kutsadura biologikoa	146	Salmonella sp.	42 (29%)	oilategiko hegaztiak	17(40,5%)	Europa	14(82%)
				belar aromatikoak	12(28,5%)	Asia	11(91,5%)
		Anisakis simplex	30(20,5%)	legatza	7 (23%)	Espainia	4 (57%)
				txitxarroa	7 (23%)	Europa	7 (100%)
Kutsadura kimikoa	134	Koloratzaile eta gehigarriak	72 (54%)	espeziak, saltsak goxokiak,ozpinetakoak	sin destacar ningún producto en porcentajes más altos		
		Hondakinak	Pestizidak	142 (75%)		102(72%)	Asia
		Medikamentuak	46 (25%)		17 (37%)	Brasil	12 (70,5%)
							21 (95,5%)
Metal astunak	188	Aluminioa	24 (31%)	noodleak	22 (92%)	Txina	21 (95,5%)

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoak izan dira:



Asiari dagokionez, kutsatzaileen % 29,5 Txinakoak dira, jarraian Turkia dugu: kasuen % 24. Europari dagokionez, jakinarazpen gehien sortu duen herrialdea Espainia izan da, % 18 dira. Afrikaren kasuan, Marokok eta Egiptok, jakinarazpenen %21 eta %20a izan dituzte. Azkenik, Amerikaren kasuan Brasil da jakinarazpen gehien sortzen duena (% 24,5a), AEBk jarraian dagoelarik %21,5arekin.